

EBAZPENA

2021eko urtarrilaren 13ko 2021/0046 Ebazpenaren bidez, Aramotz auzoko (Durango, Bizkaia) 1,2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16 bizitegi-eraikinak modu eraginkorrean birgaitzeko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzeko oinarriak onartu ziren.

Udalek hirigintzako antolamendu, kudeaketa, egikaritza eta diziplinaren arloan dituzten eskumenak kontuan hartuta (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.9 artikulua).

Kontuan hartuta autonomia-erkidegoko legeriak gaikuntza ematen diela toki-erakundeei kudeaketarako edo birgaikuntzarako hirigintza-sozietateak eratzeke, eraikitako ondarea birgaitzearen, berroneratzearen eta hiri-berrikuntzaren arloko neurriak, ekintzak eta esku-hartzeak gauzatzeko, eta hori gainerako administrazio publikoekin ere egin ahal izango dutela (3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena).


Kontuan hartuz DURANGO ERAIKITZEN sozietate publikoaren estatutuek bere helburu sozialen artean jasotzen dutela Durango Hirian ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuak garatzea (Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 26ko 308/2000 Dekretuan jasotako jarduketak), eta, bereziki, Durango Hiriko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plana kudeatzea eta gauzatzea.

Artikulu honetan xedatutakoa kontuan hartuta: Abenduaren 26ko 308/2000 DEKRETUA, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. Dekretu horren arabera, birgaitzeko hirigintza-sozietateei esleitzen zaizkie, besteak beste, birgaitzeko laguntza-eskaerak jaso eta egiaztatzeko eginkizunak, ondoren erakunde eskudunari bidaltzeko, bai eta jarduera pribatuen kontrola, sustapena, kudeaketa, aholkularitza, informazioa eta koordinazioa ere.

Gaur egun erakundeari atxikitako giza baliabideen espezializazio-maila eta eskura dauden baliabide materialak kontuan hartuta, kudeaketa behar bezala antolatzen eta deialdiaren administrazio-izapidetzearen eraginkortasuna hobetzen laguntzen da; horregatik, komenigarritzat jotzen da deialdian jasotako izapide- eta kudeaketa-egintza guztiak Durango Eraikitzen SA sozietate publikoari transferitzea, Durangoko Udalaren mendeko nortasun juridiko propioa duen tokiko enpresa-erakunde publikoari, alegia.

Kontuan hartu da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua lehenean atalean xedatutakoa. Horren arabera, administrazio bereko edo beste bateko zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde batzuen esku utzi ahal izango da administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jarduera material edo teknikoak egitea, baldin eta haien eskumenen artean jarduera horiek badaude, eraginkortasun-arrazoiengatik edo baliabide tekniko egokiak ez izateagatik.

Kudeaketa-gomendioa administrazio berekoak diren administrazio-organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen artean egiten bada, haren araudiak ezarritako moduan formalizatu beharko da, eta, halakorik ezean, esku hartzen duten zuzenbide publikoko organo edo erakundeen berriarazko akordio bidez. Nolanahi ere, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko tresna eta haren ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldirikari ofizialean edo probintziakoan argitaratu beharko dira, eraginkorra izan dadin, gomendioa egin duen organoari dagokion administrazioaren arabera. Administrazio bakoitzak arautu ahal izango ditu akordio horiek baliozkoak izan daitezen bete beharreko baldintzak, eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko dituzte berriaz: zer jarduerari eragiten dioten, indarraldia, eta agindutako kudeaketaren izaera eta norainokoa (11.3 a 40/2015 Legea).



Legeari oinarrituta eta Toki araubideko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikulua ematen didan eskumena baliatuz.

Erabaki hau hartzea 3. alkateordearen eskumena da, Aritz Bravo Zubillagarena, alegia. Aritz Bravo Zubillaga Lurralde arloko zinegotzi ordezkaria da, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkariak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa; BAO on argitaratua 2019/07/11ko 132.zenbakian).

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Durango Eraikitzen S.A. sozietate publikoari agindu zaio Durangoko (Bizkaia) Aramotz auzoko 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15. eta 16. bizitegi-eraikinak «modu eraginkorrean birgaitzeko» diru-laguntzak emateko deialdiarekin lotutako jarduera material guztiak kudeatzeko. Deialdia 2021eko urtarrilaren 13ko 2021/0046 ebazpenaren bidez onartu zen.

Bigarrena- Kudeaketa-gomendioa udal-zerbitzu teknikoaren babespean egingo da, Durangoko Udalak eman ditzakeen jarraibideen arabera.

Hirugarrena- Gomendio hori indarrean egongo da deialdia ebatzi arte.

Laugarrena- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, sozietate publikoko organo eskudunak gomendioa onartu ondoren.

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, Durangon, eta nik, Udaleko idazkari nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.